

# getxoBerri

## / Nabarmenezkoak

- > Eusferak euskararen presentzia areagotzeko jarduerak eskainiko dizkie familiei (2. or.)
- > Paloma San Basilio "Dulcinea" da, musika, umorea eta hausnarketa garaikidea uztartzen dituen ikuskizun batean (3. or.)
- > Abian da kaleko kultur programazioa "Getxo Eszena Kalean" eta "Kristalezko Kioskoa" musika zikloaren eskutik (4. or.)



\* Parkour parkea Faduran (5. or.)

**Antzerkia.** Maiatzak 8, ostirala, 20:00etan Muxikebarrin, "El barbero de Picasso", Antonio Molero eta Pepe Viyuelarekin. 18 euro.

**A-  
GENDA**

**Umirezko ikuskizuna.** Maiatzak 9, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "America forever: The final refrito", Goyo Jiménezekin. 22 euro.

## Gizarte Larrialdietarako Laguntzak izapidetzeko Prestazioen Bulegoa martxan

GLL, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen tramitazioa hobetzeko, Udalak Prestazioen Bulegoa jarri du martxan Tangora Etxean (Algorta). Horrela, Laguntza horien kudeaketa zentralizatu da, aldi berean, erabiltzaileei egin beharreko izapideak errazten dizkiete eta 2024-2027 Legegintzaldiko Planean jasotako helburuetako bat betetzen da. Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak nabarmendu duenez, "horrela Gizarte Larrialdietarako Laguntzen kudeaketa osoa gune bakar batean bideratuko dugu, horien tramitazioa hobetzeko eta herri-tarrei zerbitzu arinagoa, argiagoa eta eskuragarriagoa eskaintzeko. Gure ustez, beharrezkoa da prestazio ekonomiko-kudeaketa eta Oinarrizko Gizarte



Zerbitzuek egiten duten esku-hartze soziala bereiztea, horiek beren benetako funtzioan zentratu ahal izateko, hau da, pertsonen laguntzea, autonomia pertsonala sustatzea, mendekotasun- edo bazterkeria-egoerak prebenitzea eta gizarteratze-prozesuak bultzatzea. Berrantolaketa horrek aukera ematen digu arretaren kalitatea hobetzeko, baliabide publikoak optimizatzeko eta gi-

zarte-zerbitzuen eredu eraginkorrago baterantz aurrera egiteko, pertsonengan zentratuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legearen printzipioekin bat eginda".

Bulegoa Algortako etorbideko 98 zenbakian dago eta publiko artatzeko ordutegia 08:30etik 14:00etara izango da. Beharrezkoa da alde aurretiko hitzordua eskatzea web gunearen (<https://labur.eus/c8sjgktv>) edo Call Centerren (010/ 94 466 00 00, udalerritik kanpo deituz gero) bidez. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin aurretik harremana eduki ez duten pertsonek horietatik pasa beharko dute, hitzordua eskatu baino lehen.

## Getxophotok "RESET" egingo du eta erakusketa eta jarduera programa zabal batekin ospatuko du bere 20. urteurrena

Getxophoto, Nazioarteko Irudi Jaialdiak, bere 20. urteurrena ospatuko du maiatzaren 28tik ekainaren 21era udalerriko espazio publikoko hainbat agertokitan. Maria PTQK ikertzaile eta kultur kudeatzaile bilbotarrak azken aldiz komisariatuko du, eta RESET izango du ildo nagusia, "sistema berrabiaraztera, gure burua birpentsatzera eta energia berrituarekin proiektatzera gonbidatzen gaituen tekla". Proposamen hau aurreko urteetan PAUSA, PLAY eta REC botoiak sakatu ondoren dator.

Aurten 23 erakusketa programatu dira, gehienak aire zabalean; izan ere, Getxophotoren ezaugarria da espazio publikoaren defentsa erradikala, elkartzeko, elkarrenganako aitortzarako eta esperimendatzeko, jolasteko eta ospatzeko eremu gisa. Jaialdiaren bi leku nagusiak hauek izango dira: Punta Begoña Galeriak, sei erakusketa antolatuko baitira bertan; eta Algortako Merkatua, Sirenoari eskainitako photocall oso berezi bat eta jaialdiaren artxibo digital historikoari buruzko instalazio handi bat hartuko ditu, 20 urte hauetan jaialdian parte hartu duten ia 400 artisten lana bil-



Argazkia: Hodei Torres



Argazkia: Mohammad Rakibul Hasan

tzen duena, haien biografiekin eta instalazioei buruzko informazioarekin.

Gainera, aurten jarduera programa oso bat diseinatu da, besteak beste, bisita gidatuak, Encerrona 13 elkarrizketa programa, Batzar Nagusi bat (aurreko komisarioekin eta parte hartzen duen publikoarekin topaketa), musika playlist bat, film kanal bat edo baso-azpiko ibilbidea.

### Artista parte-hartzaileak

Parte hartuko duten 23 artisten artean, honako hauek nabarmendu behar dira: Cristina de Middle (Argazkigintzako Sari Nazionala), Snap Fingers and Whistle lanarekin; Alejandro Acín, El último lunes lanarekin (Guernica-n inspiratua); Frederic Aranda, The haircut-ekin (Ian McKellen aktorearen performanceari buruzkoa); Gohar Dashti, Home-ekin (Gatazka Ondokoaren ideian zentratua); eta Mohammad Rakibul Hasan, The Blue Fig-ekin (klima-aldaketaren inpaktuaren benetako ikerketa poetikoa).

Informazio gehiago eta egitarau osoa [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com) webgunean.



### APIRILAK 30 OSTEGUNA

**Zinemabarrri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Colectivo Neguren "Negu hurbilak". 12 urteik aurrera. 3,50 euro.

### MAIATZAK 1 OSTIRALA

**Itxartu Taldearen 50. urteurrena.** 13:00etan herriko dantzak San Nikolas plazan. 18:00etatik aurrera, Gironako castellerrek castell txikiak osatuko dituzte Basagoiti, Satistegi eta Telletxe plazetan. 19:00etan giza dorre handi bat egingo dute San Nikolasen. 20:30etik aurrera triki poteoa Basagoititik eta Algortako oinezkoen gunetik. [www.itxartu.eus](http://www.itxartu.eus)

### MAIATZAK 2 LARUNBATA

**Itxartu Taldearen 50. urteurrena.** 13:00etan dantzak Zabalan eta, ondoren, San Nicolassen. 15:00etan herri bazkaria Zabalan eta 20:30ean San Nicolassen, erromeria Luhartzekin.

**Getxo Eszena Kalean.** Areeta-ko Geltokiko plazan. **Umorea, Clown eta Musika.** 18:30ean, "B.O.B.A.S.", Cia Jimena Cavallerekin. **Dantza eta bertso-lariak.** 19:30ean, "Suak Su", Meñakoz Dantza Taldearekin.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Dulcinea", Paloma San Basilio eta Julio Awadarekin. 15 euro.

### MAIATZAK 3 IGANDEA

**Itxartu Taldearen 50. urteurrena.** 12:00etan, Portu Zaharrean, euskal dantzak.

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Arco" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

**Kristalezko kioskoa.** 13:30ean, Muxikebarrin, aurrealdean, The Pockets.

**Antzerkia.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Manual", Coriolis Compañía de Teatro de Objetos taldearekin. 6 euro.

### MAIATZAK 7 OSTEGUNA

**Ipuinaren irakurketa eta tailerra.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Mila koloretako logela", Oihane Goikoetxearekin.

**Zinemabarrri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Colectivo Neguren "Negu hurbilak". 12 urteik aurrera. 3,50 euro.

### MAIATZAK 8 OSTIRALA

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten pertsonen bilera. Gaia: "Era de noche y lluvia".

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "El barbero de Picasso", Antonio Molero eta Pepe Viyuelarekin. 18 euro.

**Zine Kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Bruno Dumontaren "El imperio" (AJB). 16 urteik aurrera. 3,50 euro.

**Bertso afaria.** 21:00etan, Algortako Azebarri Kultur Elkartearen, Nerea Ibarzabal eta Jon Maia bertsolariarekin, ALBEK antolatuta. Prezioa 20 euro (15 euro ikasleentzat). Izen-ematea: [albegetxo@gmail.com](mailto:albegetxo@gmail.com) / 605 704 385.

### MAIATZAK 9 LARUNBATA

**Umeen dantzaldia.** 17:15etan, Malakate parkean hasita, kalejira kiroldegiraino eta, ondoren, haurrentzako dantza taldeen erakustaldia aparkalekuan. Antolatzailea: Itxas Argia Dantza Taldea.

**Getxo Eszena Kalean. Clown eta Magia.** 18:00etan, Areetako Geltokiko plazan, "Gota", Txema Muñozekin. **Antzerkia.** 19:30ean, Santa Eugenia plazan, "La llegada", Koilara Teatrotarekin.

**Kontzertua.** 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokiaren, "Gospel Bilbao" abesbatzaren emanaldia.

**Dantza plaza.** 19:30ean, Malakate plazan, erromeria herriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

**Umerezko ikuskizuna.** 20:00etan, Muxikebarrin, "America forever: The final refrito", Goyo Jiménezekin. 22 euro.

### MAIATZAK 10 IGANDEA

**Haur ikuskizuna.** 16:30ean eta 19:00etan, Muxikebarrin, "Go!-zen 12". 8 euro.

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Oilaskoerbi eta marmotaren sekretua". Adin guztientzat. 2,50 euro.

**Kristalezko kioskoa.** 13:30ean, Muxikebarrin, aurrealdean, Ontario taldearen emanaldia.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "El secreto del herrero". Adin guztiak. 2,50 euro.

### - Pintorea/papereztatzailea.

Era guztietako pintura-lanak egiten dira, oro har. Garbia eta ekonomikoa. Tel.: 663 538 983 (José).



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

**STAFF** Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

getxoBerri

# Eusferak euskararen presentzia handitzeko jarduerak eskainiko dizkie familiei

Maiatzaren 7tik 17ra, *Eusfera* ekimen berriaren jardueretan parte hartzeko aukera edukiko dute bere etxetan eta auzoetan haurren eta gaztetxoaren atmosferan euskarak gero eta presentzia handiago izatea nahi duten familiek. TAUPA euskaltzaleen mugimenduak antolatuta, udalerrian Udalak, eta Egizu eta Bizarra Lepoan elkarteek sustatutako batzordeak eramango du aurrera. Batzorde horretan eragile ugariaren partaidetza eta laguntza ere izan dira, tartean ikastetxe, familia elkarte, jai batzorde eta bestelako elkarteena.

*Eusferak* familiei etxean, jolas modura, misioak hainbat planetatan edo esparrutan (ipuin, hitz, jolas, sormen, musika euskara...) proposa-



tzen dizkie etxeko unibertsoa euskalduntzearen aldeko konpromisoak hartzeko. Horretarako, <https://eusfera.taupamugimendua.eus/> webgunean baliabideak topatuko dituzte, eta misioak amaitzean, pasaporte bat bete ahal izango dute. Udalak 0

eta 12 urte bitarteko 4.400 familiari *Eusferari* buruzko informazioa eta bere pasaportea bidaliko dizkie. Ikastetxeetan ere eskuragarri egongo dira.

Bestalde, *euspazioak*, haurren eta gurasoen elkarguneak izango dira kalean. Horietan mota desberdinetako jarduerak antolatuko dituzte, haurrak eta beren familieta-ko erreferenteak elkarrekin parte hartzeko. Jardueren artean, maiatzaren 8an, 15ean eta 22an, *Parkean Olgetan* saio bereziak izango dira Neguriko Gernika parkean, Andra Mariko Malakate parkean eta Algortako San Nikolas plazan, hurrenez hurren.

Jarduera eta informazio gehiago: [www.getxoztarrak.eus](http://www.getxoztarrak.eus)

## Berbodromoaren XV. edizioak maiatzaren 21ean aterako du euskara kalera

Euskararen erabilera kalean indartzea helburu duen *Berbodromoa*, *Iruñe Etxebarria Atxaren omenez* ekitaldiaren XV edizioa maiatzaren 21ean, ostegunean, ospatuko da, 9:00etan eta 11:00etan Romoko Santa Eugenia plazan, eta 18:00etatik aurrera Algortako San Nikolas plazan. Udalaren laguntzarekin, Egizu eta Bizarra Lepoan elkarteek eta udalerriko euskaltegiek antolatuta, ohi bezala, euskaraz hitz egiteko aukera gutxi dutenak eta euskaldunak elkartuko dira taldeka euskara partekatzeko. Gai bakoitzari buruz 15 minutuz



mintzatuko dira. Gai baten eta bestearen artean, parte hartzaileak mahaiz mugituko dira. Aurtengo gaiak hurrengoak izango dira: *Leku zatar eta ederren kokapena partekatu?*, *Korrikaren ostean zer?*

*Euskaraz non egin? eta Kultura geldirik dago ala etengabe aldatzen doa?*

Inskripzioa: 619 935541/plazan/ [www.egizu.eus.berbodromoa](http://www.egizu.eus.berbodromoa)

## Zaporeak Eguna

Zaporeak, Europara iristen diren errefuxiatuei janari duina eskaintzen dien irabazi asmorik gabeko elkartearekin elkarlanean aritzen den boluntario talde batek Zaporeak Eguna antolatu du maiatzaren 9an, larunbata, TikiToki Zentroan. Helburua Greziako eremuetan harrapatuta dauden errefuxiatuen bizi-baldintzak hobetzeko elikagaiak prestatzen dituen ekimen solidarioan parte hartzen duten pertsonak, enpresak eta erakundeak elkartzea izango da. 12:00etan hasiko diren jardueren artean, bertsoak, musika, herri bazkaria eta erromeria izango dira.



### Harrera Irlandako ikasleei

Corkeko (Irlanda) Carrigtwohill Community College ikastetxeko ikasle talde batek Udala bisitatu du aste honetan, eta Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak harrera egin die. Horrela, apirilean bertan 21 ikasle getxotarrak beren ikastetxera egindako bisita itzuli dute. Ekitaldira 11 neska-mutil irlandar joan ziren, bi irakasleekin batera.

# Paloma San Basilio “Dulcinea” da, musika, umorea eta hausnarketa garaikidea uztartzen dituen ikuskizun batean

Larunbat honetan, maiatzak 2, 20:00etan, Muxikebarrin *Dulcinea* ikuskizuna izango da, Paloma San Basilio protagonista duen antzezlan, Julio Awadek pianoan lagunduta, musika, umorea eta hausnarketa garaikidea uztartuz. Proposamen honetan, artista kontzertu hutsetik aldentzen da “hezur-haragizko” Dulcinea interpretatzeko, zaldite-riako liburuen estereotipo klasikoekin hausten duena.

Obrak ahots propioa ematen dio Dulcineari, bere pentsamenduak adierazteko eta emakumearen papera aldarrikatzeko aukera emanez. Testuak Miguel de Cervantesen zatiak eta Miguel de Unamunoren apunteak erabiltzen ditu, obrarako sortutako jatorrizko testu eta abestiekin nahastuz. Interpretazioa ironiaren, umorearen eta emozio sakonaren artean dago. Sarre-  
rak 15 euro balio du.



## “Manual”, ikusizko eta keinuzko antzerkia, eskuak protagonista dituela

Coriolis Compañía de Teatro de Objetos konpainiak *Manual* ikuskizuna taularatuko du igandean, maiatzak 3, Muxikebarrin, testurik gabeko keinuzko antzerki bisual bat, eskuak “lehengai” eta lengoia narra-  
tibo nagusi gisa erabiltzen dituena. 18:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 6 eurokoa da.

Gazte eta helduentzat (15 urtetik gorakoentzat) gomendatua, antzezleen eskuen erritmo, tentsio eta trebetasunetatik abiatuta eraikitzen da lana (sei esku eszenan), eta lanbi-  
deak, zereginak eta giza emozioak irudikatzen dituzte. Bakardadea, beldurra, paranoia, boterea, ma-  
txismoa eta gehiegizko informazioa bezalako kontzeptu sakon eta garai-  
kideak aztertzen ditu.



## Ondarreta Musikasten arituko da

Areetako Ondarreta abesbatzak, Bizkaiko abesbatzen ordezkari gisa, MUSIKASTERen 54. edizioan parte hartzeko gonbita jaso du, maiatza-  
ren 9tik 16ra, Errenterian.

Iñaki Morenoren zuzendaritza-  
pean, kontzertua eskainiko du maiatzaren 15ean Errenteriako Le-  
kuona Fabrika auditorioan, San Fermin Abesbatzarekin (Nafarroa), Nurat Gazte Abesbatzarekin (Ara-  
ba) eta Zaria Koru Eskolarekin (Gipuzkoa) batera. Aita Donostiaren, Benito Lertxundiren, Iñaki More-  
noren eta Josu Elberdinen obrak interpretatuko dituzte.


## Komiki Azoka urriaren 16tik 18ra egingo da aurten



Komiki Azoka urrian egingo da ber-  
riro gure udalerrian, baina, orain-  
goan, datak aldatuko dira. San Die-  
go-Comic Con Málaga 2026rekin  
bat ez egiteko, getxotarren hitzor-  
dua bederatzigarren artearekin hi-  
laren 16tik 18ra izango da. 24 urte-  
ko ibilbidearekin, komikigintzaren  
munduan sendotasun handiena  
duen aipuetako bat da Getxokoa.

Aurten, merkataritza-gunea hiru  
kokalekutarazabalduko da, eta sek-  
toreko liburu-denden eta saltokien  
40 standak, baita argitaletxeak eta  
fanzineak ere, Areetako Geltokiko  
plazan, Ibaiondo kalean eta Romo-  
ko Santa Eugenia plazan kokatuko  
dira. Horrela, jendeak errazago zir-  
kulatuko du Santa Eugenia kalean.  
Bertan, publikoak azken nobeda-  
deak eskuratzeko aukera izango du,  
baita bildumako komikiak, askota-  
riko *merchandising*-a eta komikiaren  
eta ilustrazioaren munduarekin lo-  
tutako beste artikulatu batzuk ere.

Bestalde, Romo Kultur Etxeak  
Azokaren jardueren programa  
hartuko du. Bertan, besteak beste,  
erakusketa bat, aurkezpen edito-  
rialak, hitzaldiak, mahai-inguruak  
eta haurrentzako tailerrak egongo  
dira, espero diren sinadura txan-  
dak ahaztu gabe. Horietan, publi-  
koak bere artista gustukoengana  
eta gustukoengana hurbiltzeko  
aukera izango du. Ohi bezala, bi  
omenduko dira egindako ibilbidea-  
gatik Areetaren lehen egunean, eta  
sari bana emango zaie, bata toki-  
ko sortzaileentzat eta bestea estatu  
mailako artistentzat.



## “El ocaso del tirano”, 80ko hamarkadako Bilbo zurrunbilotsuari buruzko nobela beltza

Diego López Ruiz idazle portugetarrek *El ocaso del tirano* nobela beltza aurkeztu du Algortako Kultur Etxean. Garai nahasi bateko itzalak eta bo-  
terearen aurrean bakarrik zegoen gizon baten dilemak argitzen ditu. Obra  
1983ko Bilbon kokatzen da, birmoldaketa industrialak, indarkeria politi-  
koak eta asaldura sozial handiak markatutako garaian. Pedro Etxaniz ins-  
pektore beteteranoa da protagonista, iraganeko zauriek eta etika pertsonal  
hautsezinak markatutako gizona. Istorioa itxurazko giza hilketak komun  
batekin hasten da, laster ustelkeria politiko eta ekonomikoaren eta terro-  
rismoarekiko loturen sare bat azaleratzen duena.

# Abian da kaleko kultur programazioa “Getxo Eszena Kalean” eta “Kristalezko kioskoa” musika zikloaren eskutik

Larunbat honetatik aurrera, maiatzak 2, eta uztaile arte, kalea izango da Getxoko agertoki nabarmenetako bat. Kultura kalean bertan jendearengana hurbiltzeko eta publiko mota guztiek kultura horretara sarbidea izan dezaten errazteko, Getxo Kulturak 2024an hasi ziren bi programaren hirugarren edizioa jarri du abian. Programa horiek aurten itzuliko dira herritarrei askotariko ikuskizunak eta musika emanaldiak eskaintzeko. Horrela, hiru hilabetez, *Getxo Eszena Kalean*-ek arte eszenikoen proposamen zabala hartuko du Areetako Geltokiko plazan larunbat arratsaldeetan. Bestalde, *Kristalezko kioskoa* musika-zikloak Muxikebarri kanpoaldera eramango ditu, igande eguerdietan, estilo eta genero askotako euskal artista eta banden emanaldiak. Sarrera doakoa izango da.

## Getxo Eszena Kalean

Aurtengo programa proposamen bikoitz batekin hasiko da larunbatean, maiatzak 2, 18:30ean, B.A.S.-ren eskutik. (Kultura Ekitaldiako Ongintzako Orkestra Banda), Jimena Cavalletti konpainiaren clown eta musika ikuskizun bat, fikziozko hileta bat testurik gabeko istripu komedia bihurtzen duena, tronpeta, bonbardinoa, kutxa



eta platertxoak konbinatuz zuzeneko umorea sortzeko, eta 2024an Feten azoka ospetsuan Kaleko Lan Onenaren saria jaso zuena. Ondoren, *Suak su* ikuskizuna hasiko da (19:30ean). Meñakoz Dantza Taldeak aurkeztuko du, eta dantza, musika, kantua eta antzerkia uztartzen ditu sua euskal kulturaren ikur gisa berrinterpretatzeko.

Maiatzean, *Gota*, *La Llegada*, *Soul Project*, *Atsoak dantzan* eta *J.M. Brutal* ikuskizunak ere ikusi ahal izango dira. Ekainerako, *Tenet*, *Loritzen*, *Refugi* eta *El gran final*

*muntaiak* programatu dira, eta uztaileko, *Go go & stay stay Street*, *Alonso*, *ezinezko mandatuen mezularia* eta *galdutako gutuna* eta *IOI*.

## Kristalezko kioskoa

*Kristalezko kioskoa* musika zikloak 12 emanaldi hartuko ditu bere hirugarren edizioan, euskal artista eta taldeen eskutik, Muxikebarriaren aurrean. Igandeetan, 13:30ean, proposamen bat eskainiko dute, non askotariko doinuak ikusi ahal izango diren, hala nola pop, rock, ye-yé, funk, jazz eta blues doinuak. Egitarauari hasiera eman-

go dio igandean, maiatzak 3, The Pockets taldeak, rock-and-rollaren klasikoekin. Maiatzean, Ontario (hilaren 10ean), Gildas (17), Los Guayabo Brothers (24) eta The Dirty Gerties (31) ere arituko dira. Ekainean Moses and the tablets (7), Bringas (14), The Rumblin Groove Jazz Band (21) eta Afrika Bibang (28) programatu dira, eta uztaileko Indigo Jazz (5), Anna Szostak Quintet (12) eta Swingtronics(19). Ekainaren 21ean, 5ean eta 12an dantzak eta animazioa izango dira Swing Side Bilbaoren eskutik.



## “Miren Larrea” muralismo sariaren bigarren edizioa

Getxo Kulturak abian jarri du *Miren Larrea* Muralismo Sariaren bigarren deialdia. Ekimen horren helburua esku-hartze artistikorako proposamen bat hautatzea da, Aiboatik Euskal Herria kalera sartzeko zubiaren barruko hormetan egingo dena. Miren Larrea argazkilari, poeta eta artista getxotarraren jaiotza orotarazten duen ekimen honetarako proiektuak aurkezteko epea uztailearen 21era arte egongo da zabalik. Lehiaketan parte hartzeko beharrezkoa da adin nagusikoa izatea eta aurkeztutako lanak argitaragabeak izatea. Gaia

librea izango da, baina positiboki baloratuko dira zenbait gai, hala nola ingurunera eta udalerraren errealitatera egokitzea. Pintura eta arte plastikoaren munduko aditu eta profesionalak eta Getxo Kulturako teknikariek osatutako epaimahai batek bost proiektu aukeratu ditu, eta horien egileek 500 euroko saria jasoko dute. Bost proposamenak aukeratu ondoren, kontsulta-prozesu bat egingo da Udaleko Partaidetza Arloaren eskutik, eta herritarrek proposamen horiek baloratu ahal izango dituzte. Info: <https://labur.eus/uwxpecns>




## Duncan Dhu eta Still River, DalecandELA kartelean

Duncan Dhu, Still River, Gonzalo Portugal eta The Rock & Kids Band dira irailaren 17tik 20ra Portu Zaharrean egingo den DalecandELA Fest jaialdi solidarioaren izen berriak. Formazio hauek aurretik baieztatutako Diamond Dogs, Luke Winslow-King, La Sonrisa de Julia eta Smile taldeekin bat egiten dute.

Kartelaren bigarren aurrerapen honetan, rockari, bluesari eta interpretazio-zintotasunari lotutako nortasuna indartzen duten izenak batzen dira. Duncan Dhu taldearen itzulera nabarmen da, Getxora berrogeigarren urteurreneko bi-

raren barruan iritsiko dena. Mikel Erentxunek bere bakarkako ibilbidea alboratu du belaunaldi oso bat definitu zuen erreperitorioari berriro ekiteko. Ospakizun horri Still River amerikar sustraiko taldearen kaudimena gehitu behar zaio, zeinak hego-rock organiko eta suntsitzailea deskargatuko duela agintzen baitu. Tokiko eszena eta gitarra-bikaintasuna Gonzalo Portugalek antzeztuko ditu, eta Release lana aurkeztuko du. Jaialdiaren belaunaldien arteko proposamena osatzeko, The Rock & Kids Bandek ibilbide ludikoa eskainiko du generoaren historian zehar.



## Fadurako parkour zirkuituarekin Getxo Kirolak-ek kirol eskaintza handitzen du gazteentzat

Getxo Kirolak-ek gazteentzako kirol eskaintza handitu du Faduran ipini duen parkour zirkuitu berriarekin, udalerrian mota horretako lehen. Instalazioak 50.000 euro inguruko inbertsioa ekarri du eta aurrefabrikatutako hormigoizko 21 pieza ditu. Jarduera, kiroldegia eraldatzeko eta hobetzeko *Thinking Fadura* prozesuaren testuinguruan kokatu behar da, eta modalitate horretako adituen eta praktikan-teen gomendioak kontuan hartuta osatu da. Gainera, udal gobernu-taldeak eta PPK sinatutako akordio baten emaitza da.

Ekipamenduaren inaugurazio ekitaldian, iragan ostegunean, apirilaren 23an, Amaia Aguirre alkateak adierazi zuenez, *“pentanka-pisten estreinaldiarekin egin genuen bezala, gure helburua da Getxoko biztanleen adin-tarte desberdinei ahalik eta alternatiba gehien eskainiko dizkieten kirol-baliabide publikoak batzen jarraitzea”*.

Parkour diziplina Frantzian sortu zen laurogeiko hamarkadan, eta bi punturen arteko desplazamendua du helburu, ahalik eta modu arin, azkar eta errazenean.

Beste kirol batzuek ez bezala, ez da funtsean lehiakorra, eta hori egiteko oztopoak gainditzea ahalbidetzen duten elementuak erabiltzen dira.

Ekipamenduak 100m<sup>2</sup>-ko azalera du eta errugbi zelaiaren eta Fadurako kanpoko belodromoaren ondoan dago. Getxo Kirolak-en abonatu-txartelarekin sartzea beharrezkoa ez den parkeko gune batean dagoenez, interesa duten pertsona guztiek libre eta doan gozatu ahal izango dute ekipamendu horretaz.

## Nikole Atxutegi, Euskadiko txapelduna

Getxo Show Klubeko kidea den Nikole Atxutegi Fernandez patinatzaile gaztea da Euskadiko txapeldun berria lineako patinaje artistikoko modalitatean, alebin kategorian. Garaipen horrek Euskadiko Patinaje Federazioa ordezkatzeko txartela eman dio Santanderren duela gutxi egindako modalitateko Espainiako Txapelketan, non hamaikagarren postuan sailkatu den. Merezimenduzko emaitza da lortutakoa, kirol hau egiten bi urte besterik ez daramatzen 10 urteko promesa gazte honentzat.

## 41. Alderantziko Estropada-BBVA Trofeoa, Abran

Alderantziko bela estropada, Regata a la Inversa-Trofeo BBVA izenekoa, maiatzaren lehen egunean bezala, Abrako uretara itzuliko da. Dagoeneko 41 urte dira belaren munduko lehiaketa berezi honetan, Areetako Maritimo klubaren (RCMA-RSC) egutegiko parte-hartzaile gehienetako duen proba bihurtu baita. Regata, Crucero eta J80 motako 60 ontzi eta 300 tripulante inguru izango dira ostiral honetan irteera lerroan, 13:45etik aurrera, 10 eta 15 milia bitarteko ibilbidean estropada oso ireki bat jokatzeko. *Kribi* ontzia izan zen iazko irabazlea.

## Sei domina berri Getxoko arraunarentzat

Raspas eta Getxo Arraunek sei domina lortu zituzten joan den igandean, hilak 26, Arabako Legutioko urtegiaren jokatu zen banku mugikorreko Euskadiko Txapelketa absolutuan.

Hiru domina, urrezko bi eta zilarrezko bat, Raspas Arrauneko arraunlariek ekarri zituzten, emakumezkoen 2x eta 4x modalitateetan eta gizonezkoen 2x modalitatean. Getxo Arrauneko hirurak zilarrezkoak izan dira emakumezkoen lemaizain gabeko 4ko ontzia eta emakumezkoen zein gizonezkoen skiff probetan.

Espainiako Txapelketa ere Legution jokatu da asteburu honetan, maiatzak 2 eta 3.

## Jardunbide Egokiak turismo jasangarrirako

Udaleko Turismo Unitateko ordezkariak Turismo Jasangarrirako Jardunbide Egokien Jardunaldian hartu dute parte duela gutxi. Jardunaldia Ribamontán al Marreko (Kantabria) Udalak antolatu du. Udalerrri hori Surfaren Herrien Sareko kidea da, zeinaren kide den Getxo ere, beste herri batzuen artean. Topaketan, turismo aktiboaren hazkundea baliabide naturalen babesarekin eta tokiko bizi kalitatearekin orekatzea ahalbidetuko duten estrategiak trukatzeko lagundu zuten. Getxok Surfaren Herrien Sarearen proiektua azaldu zuen eta bertan izandako esperientzia partekatu.



## 5.675 euro solidario Haszten elkartearentzat

Haszten elkartek, Getxon egoitza duenak, taloi bat jaso du Metro Bilbaoren eskutik, martxoaren 29tik 30erako goizaldean egin zen Underrun kirol probaren hirugarren edizioan bildutako 5.675 euro solidarioekin. Metro Bilbaoko zuzendari gerenteak, Eneko Arruabarrenak, taloi solidarioa eman zion Haszten elkartearen koordinatzaile orokorrari, Pablo Hernandezi. Horrek, egindako ekarpena eskertu zuen eta funtsek erakundea osatzen duten dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi kalitatea hobetzen eta jarduera fisikoa bultzatzen lagunduko dutela ziurtatu zuen.



## Kirol Metodologi Labek Qatarko futbolaren bisita jaso du

Qatarko futbolaren ordezkariak batek Tiki Toki Zentroko instalazioak bisitatu zituen joan den astean, non Kirol Metodologi LAB proiektua kokatzen den. Bisita Saud Al Amri Al Qadisiah Operazioen zuzendariak egin zuen, eta Munduko Futbol Koparen azken antolatzailea den herrialde horretara mundu osoko kirol honen proiektu moderno eta berritzaileenetara hurbildu nahi duen biraren barruan kokatu zen bisitaldia. Bileran hainbat klubetako, Euskadiko Futbol Federazioko eta Getxo Kirolak-eko ordezkariak izan ziren.

# Udal talde politikoaren iritzia



## ESKERRIK ASKO, AMAIA AGUIRRE!

2023-2027ko agintaldi edo legegintzaldiko urte bat dugu oraindik aurretik Getxoko EAJ-PNV udal taldeak, Amaia Aguirre buru duenak, Getxoko biztanleei egindako konpromiso eta proposamenei azken ukitua emateko.

Datorren urte honetan, irisgarritasunarekin eta mugikortasunarekin aurrera egiten jarraituko dugu, Areetan egin den bezala, pertsonentzako atsegina den hiri eremu batekin, edo Zugatzarten, etorbide seguruago batekin, edo Bidezabaleko arrapala berrituekin eta, azkenean, Salsidun txukuntzen joan gaitzkeenekin; edo Getxon mapa bikaina osatzen duten igogailuekin eta bidegorriekin, Andra Mari auzoan aukera berriak eta seguruagoak eskaintzen dituztenak.

Bete ditugu konpromisoak kirolaren esparruan, bai klub, talde eta kirolariei dagokienez, bai ikusgai dauden eta erre-

ferente gisa aurkezten gaituzten azpiegitura eta ekipamenduei dagokienez: hala nola, TikiToki, zeina topagunea aparta izateaz gain, berrikuntzan eta kirolean punta-puntako zentroa baita. Berdin izan da kulturaren arloan, Muxikebarriren programazio apartarekin, Musika Eskolarekin edo RKEarekin. Baita Getxoko edo nazioarteko eragile eta erakunde kultural askorekin lantzen diren ekimenekin ere.

Era berean, hurbileko polizia eredua dugu, Ertzaintzarekin batera segurtasuna hobetzeko konpromisoa hartu duena. Horretaz gain, ingurumena eta gure ingurunearekiko errespetua sustatu ditugu, eta Getxoren potentziala azpimarratuko duen turismo jasangarria bultzatu dugu, proposamen hutsetan erori gabe; gure merkataritza eta ostalaritza-ekin aurrera eramaten den lanarekin bezala. Are gehiago, Getxoko garbiki-

tan hobekuntzak ikusten ari gara, gure kale, parke zein plazetan, hain zuzen ere, pixkanaka Getxok merezi dituen estandarretara iristen ari gara. Hemendik denbora gutxira gure parkeez eta eremu naturalez arduratuko den lorezaintza zerbitzu hobea ere eskainiko dugu.

Amaia Aguirre Muñok eta bi agintaldi hauetan zehar berarekin aritu den taldeak eraman dute Getxoko EAJ-PNV udal taldearen konpromisoa, Getxoko bizilagun guztiekin konplizteko behar den ardura, erantzukizun eta zorrotasunarekin.

Eskerrik asko, Amaia Aguirre, Getxo hobea eraikitzeke erakutsi duzun jarreragatik, erronkei aurre eginez eta udalerako aurrerapen garrantzitsuak lortuz. Zurekin lanean jarraituko dugu, konpromiso bera dugula, azken egunera arte. Hori guztiagatik, gure esker ona helarazi nahi diogu. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko!



## 240 PLAZAKO APARKALEKU BERRIA EGITEA PROPOSATZEN DUGU

Alderdi honetatik, **Faduran** lur gaineko **aparkaleku** berria eraikitzeke proposamena egin nahi dugu, ondotoxoz ezagutzen dugun arazo bati aurre egiteko: **aparkaleku plaza gabezia**. Gure ekimenak **240 plaza** egitea aztertu du. Plaza horiek eginez gero, **gaur egungo edukiera hiru-koiztu** eta oraingo egoera gainezkatua **arinduko** litzateke. Badakigu, gehienbat puntako orduetan, zaila baino zailagoa egiten zaiela aparkalekua topatzea bai kiroldegira joaten direnei, bai inguruko bizilagunei. Horregatik, Fadurara **heltzea** erraztu eta inguruko **mugikortasuna** hobetuko duen erantzuna aurkitu dugu.

Gainera, garrantzitsua iruditzen zaigu egoiliarrek espazio hori **gaueko ordutegian** ere aprobetxatu ahal izatea, auzoko **aparkatzeko presioa murrizten** laguntzeko eta hura modu eraginkorragoan erabiltzeko.

Gure iritziz, **proposamen errealista** da hizpide duguna, azkar gauzatu daitekeena, **ingurunean erraz integratu** daitekeena, eta Getxoko kirolgune nagusietako bat erabiltzen duten bizilagunen edota erabiltzaileen egunerokoa hobetzeko aukera emango duena. #Andrade2027 #EsnatuGetxo



## ehbildu

## GETXO ENTZUTEN: GURE ETORKIZUNA ELKARREKIN IRUDIKATZEN

Garai aztoratu hauetan garrantzitsua da inguratzen gaituzten errealitateari begiratu eta gure etorkizuna nola proiektatu nahi dugun hausnartzea. Horregatik, EH Bildutik Nazio Elkarrizketa izeneko prozesua abiatu dugu, gizartearen aniztasunetik abiatuta, diagnostiko partekatua bat eta etorkizuneko ortzimuga komun bat eraikitzeke helburuarekin.

Prozesu hau ez da goitik behera datorren zerbaitekin behetik gora, herriz herri eta auzoz auzo eraikitzen ari den ariketa demokratikoa da. Getxon ere bete-betean gaude entzuketako prozesu honetan. Gure herriko

60 norbanako eta elkarte baino gehiagorekin biltzen ari gara, haien kezkek, erronkak eta proposamenak lehen eskutik jasotzeko. Gure ustez, tokian tokiko jarduna da prozesu honen bihotza, Getxoko errealitate zehatzak bermatuko baitu diagnostiko nazionala sendoa eta fidela izatea.

Hala ere, entzuketako honek ez du eragile antolatuetara mugatu nahi. Gure helburua herritar ororengana iristea da, bakoitzak bere eguneroko bizitzan dituen kezkek eta herriarentzat dituen ametsak ezagutzeko. Getxoztar bakoitzaren ahotsak balio handia du gure komunitate

kohesionatzeko eta etorkizuneko erronkei —hala nola etxebizitza, zaintza, euskara edo trantsizio ekologikoa— aurre egiteko.

Horretarako, herri inkesta bat jarri dugu martxan. Tresna erraz, labur (3-5 minutu) eta erabat anonimoa da, herritarrek gaur egungo gizarte-giroari eta herri-erronkei buruz duten pertzepzioa adieraz dezaten. Zure iritzia ezinbestekoa da: Zer da momentu honetan gehien kezkatzen zaituena? Zein erronka ikusten dituzu Getxon eta Euskal Herrian? Artikulu honekin batera aurkituko duzun QR kodearen bidez, inkesta bete eta

prozesu kolektibo honen parte izatera gonbidatzen zaituztegu. Ez da soilik informazioa biltzea; galdetzeko ekintza bera elkarri entzuteko eta gure herri proiektua indartzeko ekitaldi politiko bihurtu nahi dugu.

Guztion artean, Getxo eta Euskal Herri hobeago bat irudikatu eta eraikitzeke unea da. Zure hitza da gure oinarria. Parte hartu!



## GETXOK ERREGULARIZAZIOAREKIN KOLABORATZEN DU



## ANDRA MARIRAKO KULTUR ETXEA

PSE-EE alderdiak kudeatzen duen Gizarte Kohesio Arloan lanean ari gara buru-belarri hari heldu diezaioketen migratzaileei **erregularizazio prozesuan laguntzeko eta hura errazteko**. Migrazioen Harrera eta Arretarako Bulegoa **eskaera izapidetu nahi duten pertsonen** eskura jarri dugu, ez bakarrik zaugarritasun ziurtagiriak emateko helburuarekin, baita **behar dutenei orientazioa, babesa eta la-**

**guntza emateko aholkularitza juridiko espezializatua eskaintzeko** ere. Erregularizazioa **neurri garrantzitsu eta positiboa** da; izan ere, horren helburua da jada Getxon bizi direnei, gure auzoen, eguneroko bizitzaren eta komunitatearen parte diren horiei laguntzea. **Gure gizartearen ekarpenak egiten dituzte**, eta haien bizi proiektuak aurrera eramateko eskubideak, egonkortasuna eta segurtasuna behar di-

tuzte. Gainera, erregularizazio hori aukera paregabea da **pertsona asko zaugarritasun egoeratik ateratzeko**; hala, gizarte gisa aurrera egin dezakegu eskubideei, bizikidetasunari eta gizarte kohesioari dagokienez. Administraziook **zorrotasunez, erantzukizunez eta segurtasun juridikoz** ari gara lanean, **horretarako eskubidea duten** pertsona guztien erregularizazio prozesua errazte aldera.

Andra Mariko biztanleek gora egin arren, bizitzak behera egin du. Hirigintza sakabanatuak eta saltoki txikien desagerpenak herritarren pulstua ahuldu dute. Hortaz, zerbitzu soziokultural publiko irisgarrien alde egin behar dugu: liburategien, ludoteken, areto irekien eta adin guztietarako programazioa dituen kultur etxearen alde. Hala, komunitate bizi eta kohesionatuen alde egiten dugu.